

# Mark Strand, erramuz koroaturiko poeta

SARRERA: PAULO KORTAZAR  
SORTAREN ITZULTZAILEA: KARLOS DEL OLMO

Mark Strand Kanadan jaio zen 1934an, Prince Edward-en, baina umetatik EEBBetan zein Hego Amerikan bizi izan da. Egun, Strand pertsonaia publikoa da Ipar Amerikan, eta batez ere EEBBetan, non nahiko ezaguna den 1990ean *Poet Laureate* izendatu zutenetik eta *Blizzard of One* poema bildumak Pulitzer saria irabazi zuenetik. Bere itxurak, altua eta edertasun klasikoduna izaki, Stranden aura indartu egin du; horren adibide bezala, zeluloidean izan zuen lehen agerpenari *New Yorker* aldizkariak egindako jarraipena aipa daiteke (Goodyear, 2001). Hori esanda, irakurleari aditzera eman behar zaio nola antologia hau kontradikzio batetik jaioa den. Euskaraz argitaratzen den Mark Stranden lehenengo antologia honek irakurleari poetarengana hurbiltzeko posibilitatea eman nahi dio, Stranden pertsonaiaren aurak irakurketa prozesuan eragina izan dezan aurretik. Ez da gutxiesteko gai bat, Strandek, sarritan, olerkietan autorearen presentzia/ausentzia dialektika lantzen baitu, ahots liriko eta autorearen arteko jokoak bilatuz. Baina ezaugarri hori geroago az-

tertuko dugu. Tartean, antologian dauden olerkiak *Blizzard of One* (1998) Pulitzer saria irabazitako liburutik eta ondorengoe-tatik aukeratu dira, hau da, Strandek ospearen puntu gorenean idatziriko *Man and Camel* (2006) eta *Almost Invisible* (2012) liburuetatik. Horra kontradikzioa. Gutxienez, lehenengo premisara itzultzea daukagu: irakurleak Stranden olerki ospetsuenak irakurriko ditu inolako ospe zantzurik iragarri gabe. Bigarren aitzakia modura, esan daiteke aukeraturiko olerkiek ondo zehazten dutela Stranden poetika.

Poetikari buruz ari garenez, autorearen irakurtzerakoan ezaugarri deigarriena hizkuntzaren erabilera da. Konplexutasunetik zein barrokotik urrun, hizkuntza zuzena eta zehatza izatea lantzen du; baliteke deskripzioak guttiz zehatzak ez izatea, baina beste mota bateko zehaztasun batez ari gara: behar diren hitzak baino gehiago ez erabiltzeaz. Strandek onartzen du bere hizkuntzari dagokionez kontzienteegia dela, neurrikotasunak mugatzen duela: “It keeps me from exploiting areas that I like (...) I have

a clear sense of what my limitations are, the degree of complexity I can handle” (Vine eta von Halberg, 1977). Hala ere, ezin da albo batera utzi Stranden olerkigintzak irudien errepresentazioekin duen erlazioa. Ekfrasiaren erabilerak Strand esperientziaren poeta bezala identifikatzen du; beharbada “A letter from Tegucigalpa” da esperientzia hori argien islatzen duen olerkia. Irudimena albo batera uzten da, eta bizipenek, bizitakoak, balio dute lirikaren oinarri gisa. “I had been a Polar explorer” deiturikoan, ahots lirikoa esperientziaren kategorian gordeta duten irudien bidez hasten da idazten: “I filled page after page with visions of what I had witnessed”.

Esperientziarekin jarraituz, Strand eremu domestikoaren poeta dela esan daiteke, egunerokotasunaren irudialdatzeaz baliatzen dena. Horren adibide, antologiarako aukeratutako bi olerki: ‘Man and Camel’ eta ‘Two Horses’. Lehenengoak argi eta garbi irudikatzen du nola iraultzen dituen Strandek egunerokotasunaren koordenadak. Olerkian, errutinaren inguruan kokaturik, poeta sublimazio bidean hasten da; EEBBetak hiriko atarian hasten dena desertura heltzen da, berriz poetaren etxera itzultzeko. Aipatu dugun bigarren olerkian, poetak eragiten du errealitatearen apurketa, lakuan makurturik ura edanaz. Baina berandu baino lehen berak hasi duen dinamika gaina hartzen dio; zaldiak, lasaitasun osoz beraren parean makurtzen dira. Egunerokotasunak bestekotasunarekin dituen enkontruak, beraz. Batzuetan alegorikoak, gamelua eta zal-

diekin gertatzen den bezala. Hala ere, biek ala biek azpimarratzen dute sublimazioa heldu aurretiko unea (“Was this the night that I had waited for/ so long?”), hainbeste espero den sublimazio hori ez baita inoiz heltzen: esploratzaileak ikusten duen gizona itzalen artean desagertzen da (“he took a step back, turned away, and started to fade/ as longing fades until nothing is left of it”), zaldiek ez dute poeta beren artean onartzen (“They moved slightly away”) edo poeta berak gizon eta gameluaren kantua zapuzten du (“You ruined it. You ruined it forever”).

Strandek sublimearekiko erakusten duen dinamika horrek zerbait irudikatzen badu, egungo gizakiaren inpotentzia historikoa da. Erreferente gisa T.S. Elioten *The Wasteland*-ek irudikatzen zuen gerraosteko inpotentzia aipa dezakegu. Baina, tamalez, Stranden subjektu lirikoak ez daramate gerrako beldur eta izuaren zama. Beste zama mota bat da, hala-moduzkotasuna eta nekea, alegia, norberaren inpotentziaz kontziente izatearena<sup>1</sup>. Horra sublimearen desagerpena, edo ez iristea. Subjektu modernoak, edo postmodernoak, ez baitu sublimea merezi. Edo galdera bezala formulatuz: zergatik beharko luke sublimeak nola-halako giza-kiarengana agerrarazi? Strandek dioen bezala: “Time slips by; our sorrows do not turn into poems, /And what is invisible stays that way” (“The next time”). Erdipurdikoak gara eta, beraz, ez dugu parterik gizadiaren historian, eta sublimea, metafisikoa, ikusezin mantenduko da guretzat.

1. “I think that the world is overwhelming and that people are very small. One is even impotent in dealing with one’s own past, one’s own history” (Vine eta von Halberg: 1977).

Dena dela, Mark Strandek salbuespenak egiten ditu noizean behin. Sublimeari dago-kionez, heriotza da XXI. mendeko gizakiak bizi dezakeen sublimea. Horretaz gain, aldiro, badirudi Strandek erabiltzen dituen ahots lirikoak bizitzeaz nekatuta daudela, aurretik deskribaturiko inpotentziak eragindako neke psikologikoa dutela, alegia. Beraz, heriotzak, era berean, sublimea zein bizi-nekaduratik libratzeko posibilitatea ematen dio gizabanakoari. Har dezagun ‘Old Man Leaves Party’ adibide: gizon zaharkituak jaia atzean utzi, eta izadian barrena biluztu egiten da —azalekoaren abandonuaren metafora gisa—, azken bertsoetan haragizko gorputzetik harago ere nor izaten jarraitzeko. Eskema poetiko modura, bizi-nekaduraren hurrengo pausu logikoa da heriotzaren bidez azaltzen den sublimea, baina errekurtso bezala unibertsala dela esan dezakegu. Azken finean, Strandek bizitzaren hala-moduzkotasuna planteatzen duen baretasuna, tentsio liriko gabezia, desagerpenak eragiten duen erredentzioaren bidez ebatzen du. Presentzia eta absentiaren arteko dialektikan sakonduz. Unibertsaltasun elementua, desagerpenerako erabiltzen duen sinbologiarekin lotua dago: itsasoa eta genesiaren narratiba. Adibidez, ‘The Buried Melancholy of The Poet’ olerkian, poeta emakumeen irudi idilikoak gogoratu ondoren, mirarizko gauera, itsaso ilunera murgiltzen da (“what he shed was the dark, what he found was the night”) emakumeak, genesia eta itsasoaren arteko erlazioa azpimarratuz. ‘A Letter From Tegucigalpa’ poeman, ordea, desagerpena eta

iluntasuna dira askapena eta zoriontasunaren sinonimo, argia eta presentzia jasanezina diren artean: “What I had not realized then, but now know only too well, is that sparks carry within them the wish to be relieved of the burden of brightness”.

Presentzia eta absentiaren arteko dialektika eremu ugaritan agertzen da. Hasieran esan den bezala, Strandek, poeta modura, bere olerkietan pisu nabaria du, eta, maiz, ahots lirikoak bere irudi gisa erabiltzen ditu. Badira hainbat olerki subjektu bezala poeta bat dutenak, eta berez, Stranden presentzia azpimarratzen dutenak. Sarritan, poeta izateak dakarren pisuaz ari da autorea, adibidez ‘The Buried Melancholy of The Poet’ edo ‘A Letter From Tegucigalpa’ olerkietan gertatzen den bezala. Eta batzuetan Strandek bere pertsonaiaren islarekin jokatu du, bestekotasuna azalduz bere olerkietan autorearen dobleak agerraraziz, ‘Two Horses’ olerkian gertatzen den modura; poetak beste bizitza batean poeta izatearen posibilitateaz hausnartzen du.

Stranden estilo ekfrasikora itzuliz, irakurleak nabaritu du olerkietan agertzen diren hainbat irudi eta gai ezagunak zaizkiola. Komenigarria da Wallace Stevensen Strandengan duen eragina gogoratzea bere olerkigintzan agertzen den alegoria eta bestekotasunaren presentzia ulertzeko<sup>2</sup>, eta are komenigarriagoa Edward Hopperrek idazle kanadarrarengan izan duenari buruz hausnartzea. Badu Strandek Hopperri buruzko liburu bat, margolariaren lanak subjektiboki deskribatzen dituen (*Hopper*, 1994). Baina

---

2. “But there is another type of poetry, in which the poet provides the reader with a surrogate world through which he reads this world. Wallace Stevens was the twentieth-century master of this” (Wallace, 1998).

esan bezala, gaiak eta Amerikako paisaia idilikoek daukate zeresan gehien eraginari dagokionez: "So why plug away at the same old self when the landscape/ Has opened its arms and given us marvelous shrines/ to flock towards? The great motels to the west are waiting". Berriz, desagertzeak dakarren erredentzioa, baina oraingoan amerikar identitatearen narratiba gailentzen da, mugimendua, paisaia eta mendebaldera bidaia. Dena dela, antologia honetan dau den olerkien artean Hopperren eraginpean idatzi den bat aukeratu behar bada, emakumeen bakardadeaz ari den 'The Buried Melancholy of the Poet' litzateke, Hopperen *A Woman in the Sun* (1961), *Morning Sun* (1952) eta *Second Story Sunlight* (1960) gogora dakartzalako: "those women who sat by the ocean, watching, waiting for something that would never arrive, the wind light

against their skin, sending loose strands of hair across their lips".

#### BIBLIOGRAFIA:

- Goodyear, Dana (2001): "Mark Strand, Take Two". *The New Yorker*. Ekainak 11. Web:<[http://www.newyorker.com/archive/2001/06/11/010611-ta\\_TALK\\_THE\\_PICTURES](http://www.newyorker.com/archive/2001/06/11/010611-ta_TALK_THE_PICTURES)>
- Vine, Richard eta von Hallberg, Robert (1977): "A conversation with Mark Strand" *Chicago Review* vol. 28. 130-140 or. University of Chicago Press, Chicago.
- Wallace, Shawn (1998): "Mark Strand: The art of poetry". *The Paris Review* vol. 128. 146-178 or. Paris Review: EEBB.

### **Old Man Leaves Party**

*It was clear when I left the party  
That though I was over eighty I still had  
A beautiful body. The moon shone down as it will  
On moments of deep introspection. The wind held its breath.  
And look, somebody left a mirror leaning against a tree.  
Making sure that I was alone, I took off my shirt.  
The flowers of bear grass nodded their moonwashed heads.  
I took off my pants and the magpies circled the redwoods.  
Down in the valley the creaking river was flowing once more.  
How strange that I should stand in the wilds alone with my body.  
I know what you are thinking. I was like you once. But now  
With so much before me, so many emerald trees, and  
Weed-whitened fields, mountains and lakes, how could I not  
Be only myself, this dream of flesh, from moment to moment?*

### **Agurea jaitik joan da**

Gauza ageria zen jaitik joan nintzanean  
Laurogei urte baino gehiago izan arren anartean banuela  
Soin eder bat. Iretargiak argi egin zuen goitik beti legez  
Barne gogoeta sakoneko uneetan. Haizeak arnasari zion eutsi.  
Eta begira, baten batek ispilu bat largatua zuen zuhaitz baten aurka.  
Egiaztatu ostean bakarrik nintzela, alkandora nuen erantzi.  
Juka loreek baietz egin zuten ilargiz blaituriko buruekin.  
Prakak erantsi nituen eta mitek sekuoien inguruan hegaz egin zuten.  
Ibarraren amaian berriro hasi zen ibai zirtatsuko ura isurtzen.  
Zeinen bitxia ni basa lurretan bakarrik egotea ene gorputzarekin.  
Badakit zer darabilzun buruan. Zu bezalakoa izan nintzen behin. Baina orain  
Aurrean hainbeste dudala, makina bat zuhaitz esmeralda, eta  
Belar zuriko zelaiak, mendi-aintzirak, nolatan ezin ninteke  
Ni neu baino ez izan, haragizko amets hau, unerik unera?

### **The Next Time**

I

*Nobody sees it happening, but the architecture of our time  
Is becoming the architecture of the next time. And the dazzle*

*Of light upon the waters is as nothing beside the changes  
Wrought therein, just as our waywardness means*

*Nothing against the steady pull of things over the edge.  
Nobody can stop the flow, but nobody can start it either.*

*Time slips by; our sorrows do not turn into poems,  
And what is invisible stays that way. Desire has fled,*

*Leaving only a trace of perfume in its wake,  
And so many people we loved have gone,*

*And no voice comes from outer space, from the folds  
Of dust and carpets of wind to tell us that this*

*Is the way it was meant to happen, that if only we knew  
How long the ruins would last we would never complain.*

II

*Perfection is out of the question for people like us,  
So why plug away at the same old self when the landscape*

*Has opened its arms and given us marvelous shrines  
To flock towards? The great motels to the west are waiting,*

*In somebody's yard a pristine dog is hoping that we'll drive by,  
And on the rubber surface of a lake people bobbing up and down*

*Will wave. The highway comes right to the door, so let's  
Take off before the world out there burns up. Life should be more*

*Than the body's weight working itself from room to room.  
A turn through the forest will do us good, so will a spin*

*Among the farms. Just think of the chickens strutting,  
The cows swinging their udders, and flicking their tails at flies.*

*And one can imagine prisms of summer light breaking against  
The silent, haze-filled sleep of the farmer and his wife.*

## **Etorkizuna**

I

Inork ez du ikusi gertatzen, baina gure garaiko arkitektura  
Bihurtzen ari da etorkizuneko arkitektura. Eta argiak

Uretan ateratako dirdira ezer ez da alderatuz gero hartan  
Forjaturiko aldatetekin, gure errebolta zaletasunak ez duenez adierazten

Ezertxo ere gauzak etengabe ertzaren gainetik eroatearen aurka.  
Inork ezin du gerarazi isuria, baina inortxok ere ezin du abiarazi.

Denbora badoa; gure penak ez dira poema bihurtzen,  
Eta ikusezina denak halaxe dirau. Desirak egin du hegaz,

Lagata bakarrik perfume airetxo bat bere igaroaldian,  
Eta hain maite genuen jendea joana da,

Eta inongo ahotsik ez dator kanpoko espaziotik, tolesturekiko  
Hautsetik eta haizezko tapizetatik guri esatera

Hau dela gauzek gertatu beharreko modua, jakingo bagenu soilik  
Noiz arte iraungo duten erruinek inoiz ez ginatekeela kexatuko.

II

Perfekzioa ezin erdiestekoa da gure moduko jendearentzat,  
Hortaz, zergatik atxiki lehengo ni zaharrari noiz eta paisaiak

Zabaldu dituenean haren besoak eta eskaini dizkigun santutegi liluragarriak  
Haietarantz jotzeko? Zain dira sartalderako motel handiak,

Norbaiten patioan txakur aratz batek espero du guk haren paretik gidatzea,  
Eta aintzira bateko gomazko azalean jendeak balantzaka gora eta behera

Agur egingo digu eskuaz. Autobidea ateraino heltzen da, gaitezen  
Joan kanpoko mundua kiskali aurretik. Bizitzak behar luke izan areago

Gelaz gela doan norbaiten gorputzaren pisua baino gehiago.  
Basotik osteratxo bat egiteak on egingo digu, baita inguraldi batek ere

Baserrien artetik. Ditzagun buruan erabil oilasko harroxkoak,  
Behiak errapeak astintzen, eta euliak buztanaz uxatzen.

Eta batek irudika ditzake udako argizko prismak apurtzen  
Nekazariaren eta haren emaztearen loaldi isil lainoz betearen aurka.

III

*It could have been another story, the one that was meant  
Instead of the one that happened. Living like this,*

*Hoping to revise what has been false or rendered unreadable  
Is not what we wanted. Believing that the intended story*

*Would have been like a day in the west when everything  
Is tirelessly present—the mountains casting their long shadow*

*Over the valley where the wind sings its circular tune  
And trees respond with a dry clapping of leaves—was overly*

*Simple no doubt, and short-sighted. For soon the leaves,  
Having gone black, would fall, and the annulling snow*

*Would pillow the walk, and we, with shovels in hand, would meet,  
Bow, and scrape the sidewalk clean. What else would there be*

*This late in the day for us but desire to make amends  
And start again, the sun's compassion as it disappears.*

III

Beste kontakizun bat izan zitekeen, izan behar omen zuena  
Gertatu zenaren orde. Hala bizitzea,

Itxaro dugula faltsua izan zena edo irakurgaitz bihurturikoa berraztertzean  
Ez izatea guk gura genuena. Sinesten agindutako istorioa

Izango zela sartaldeko egun bat bezalakoa noiz den-dena  
Nekaezin egoten den presente —mendiek haien itzal luzea hedatzen

Haran gainera non haizeak aire zirkular bat kantatzen duen  
Eta zuhaitzek erantzuten hosto txalo lehor batez— gehiegian zen

Erraza zalantzarik gabe, eta ikusmen laburrekoa. Zeren aurki orriak,  
Beltz bihurtu ostean, eroriko ziren, eta elur deuseztatzaileak

Bidea leunduko zukeen, eta gu, palak eskuan ditugula, elkartu egingo ginen,  
Elkar agurtuko, eta arraskatuz espaloia garbituko. Besterik zer egongo han

Guretzat eguneko halako ordu beranduan ez bada bakeak egitea desiratzea  
Eta ostera ere ekitea, eguzkiaren errukia hura desagertu ahala?

## **Our Masterpiece Is the Private Life**

*for Jules*

I

*Is there something down by the water keeping itself from us,  
Some shy event, some secret of the light that falls upon the deep,  
Some source of sorrow that does not wish to be discovered yet?*

*Why should we care? Doesn't desire cast its rainbows over the coarse porcelain  
Of the world's skin and with its measures fill the air? Why look for more?*

II

*And now, while the advocates of awfulness and sorrow  
Push their dripping barge up and down the beach, let's eat  
Our brill, and sip this beautiful white Beaune.*

*True, the light is artificial, and we are not well-dressed.  
So what. We like it here. We like the bullocks in the field next door,  
We like the sound of wind passing over grass. The way you speak,*

*In that low voice, our late night disclosures . . . why live  
For anything else? Our masterpiece is the private life.*

III

*Standing on the quay between the Roving Swan and the Star Immaculate,  
Breathing the night air as the moment of pleasure taken  
In pleasure vanishing seems to grow, its self-soiling*

*Beauty, which can only be what it was, sustaining itself  
A little longer in its going, I think of our own smooth passage  
Through the graded partitions, the crises that bleed*

*Into the ordinary, leaving us a little more tired each time,  
A little more distant from the experiences, which, in the old days,  
Held us captive for hours. The drive along the winding road*

*Back to the house, the sea pounding against the cliffs,  
The glass of whiskey on the table, the open book, the questions,  
All the day's rewards waiting at the doors of sleep . . .*

## Bizitza pribatua da gure maisulana

Julesi

I

Ba ote zerbait hor beheko ur sakonean saihets egiten diguna,  
Jazoera lotsatiren bat, sakonaren gainera erortzen den argiaren sekreturen bat,  
oraindik aurkitua izan nahi ez duen min iturri halako bat?

Zergatik behar digu axola? Ez al ditu desirak bere ostadarrak proiektatzen portzelana latz  
Den mundu azalaren gainera eta haren konpasekin airea betetzen? Zergatik gehiago bilatu?

II

Eta orain, izuaren eta tristuraren abokatuak ari direla  
Bultzatzen urez beteriko txalupa hondartzan gora eta behera, jan dezagun  
Geure erreboiloa, eta dezagun edan Beaune zuri eder hau.

Egia, argia artifiziala da, eta ez gaude ondo jantzita.  
Eta zer? Atsegin dugu hau. Ondoko belardiko idiak ditugu atsegin,  
Atsegin dugu haizearen hotsa belarretatik igarotzean. Berba egiten duzun modua.

Halako ahots apal batez, gauerdian aitortzen ditugunak... zergatik bizi  
Beste edozer gehiagotatik? Bizitza pribatua da gure maisulana.

III

Moilan zutik *Zisne Errariaren* eta *Izar Garbiaren* artean  
Gaueko airea arnasten artean gozamenaren unea  
Gozamen iheskorrean aienatzean handituz doala dirudielarik, bere burua zikintzen

Edertasuna, izan zena besterik ezin baitaiteke izan, bere buruari eusten diola  
Apur bat gehiagoan joatean, buruan darabilt geure ibilaldi erosoan  
Partizio mailakatuen artetik, krisialdia odolusten baita

Arruntasunean, aldiko gu nekatuxeago uzten gaituela,  
Urrunxeago esperientzietatik, zeinek, aspaldiko garaiotan,  
Ordu luzez kateatzen gintuzten. Gidatzea bide bihurgunetsutik

Etxera bueltan, itsasoa labarren aurka zanpaka,  
Whiski basoa mahai gainean, liburu zabaldua, itaunak,  
Egunak dakartzan sari guztiak loaldiko ateetan zain...

### **I Had Been a Polar Explorer**

*I had been a polar explorer in my youth  
and spent countless days and nights freezing  
in one blank place and then another. Eventually,  
I quit my travels and stayed at home,  
and there grew within me a sudden excess of desire,  
as if a brilliant stream of light of the sort one sees  
within a diamond were passing through me.  
I filled page after page with visions of what I had witnessed—  
groaning seas of pack ice, giant glaciers, and the windswept white  
of icebergs. Then, with nothing more to say, I stopped  
and turned my sights on what was near. Almost at once,  
a man wearing a dark coat and broad-brimmed hat  
appeared under the trees in front of my house.  
The way he stared straight ahead and stood,  
not shifting his weight, letting his arms hang down  
at his side, made me think that I knew him.  
But when I raised my hand to say hello,  
he took a step back, turned away, and started to fade  
as longing fades until nothing is left of it.*

### **Two horses**

*On a warm night in June  
I went to the lake, got on all fours,  
and drank like an animal. Two horses  
came up beside me to drink as well.  
This is amazing, I thought, but who will believe it?  
The horses eyed me from time to time, snorting  
and nodding. I felt the need to respond, so I snorted, too,  
but haltingly, as though not really wanting to be heard.  
The horses must have sensed that I was holding back.  
They moved slightly away. Then I thought they might have known me  
in another life—the one in which I was a poet.  
They might have even read my poems, for back then,  
in that shadowy time when our eagerness knew no bounds,  
we changed styles almost as often as their were days in the year.*

### **Esploratzaile izan nintzen Poloan**

Gaztetan esploratzaile izan nintzen Poloan  
eta eman nituen hamaika egun eta gau izozten  
leku mortu batean eta gero bestean. Azkenik,  
bidaiak eten eta etxean gelditu nintzen,  
eta hantxe hazi zen nigan bat-batean gehiegizko nahikari bat,  
diamantearen barruan ikusten ditugunen moduko argi  
izpi dirdiratsu batek zeharkatu banindu bezala.  
Bete nituen orriak eta orriak ni lekuko izandako imajinekin...  
izotz zatizko itsas oihulariak, glaziar erraldoiak, eta haizeak  
erasandako icebergen zuritasuna. Gero, bestelako zeresanik ez nuela, gelditu  
eta begirada hurbilenekoari atxiki nion. Ia une hartan bertan,  
beroki iluna eta hegal zabaleko kapela jantziriko gizon bat  
agertu zen gure etxe aurreko zuhaitzen artetik.  
Aurrera begiratu eta egonean geratzeko moduak,  
soinaren pisua hankatik hankara igarotzeke, besoak dingilizka utzita  
alboetan, ezaguna nuela pentsarazi zidan.  
Baina eskua jaso nuenean diosal egiteko,  
urrats bat atzera egin, itzuli, eta desagertzen hasi zen  
hartatik ezer gelditzen ez den arte irrika desagertu bezala.

### **Bi zaldi**

Ekaineko gau epel batean  
aintzirara joan nintzen, lau hankan geratu nintzen,  
eta piztiaren antzera nuen edan. Bi zaldi  
alboratu zitzaizkidan, haiek ere edatera.  
Harrigarria da, pentsatu nuen, baina nork sinetsiko du?  
Zaldiek so egiten zidaten lantzean behin, ufaka  
eta buruaz baiesten. Erantzun beharra sentituta, horrenbestez, ufakoa egin nuen nik ere,  
baina zalantzati, benetan inork ez entzun guran legez.  
Zaldiek sentitu bide zuten atzera egiten ari nintzela.  
Apur bat urrundu ziren. Orduan pentsatu nuen seguru asko ezagutu ei nindutela  
beste bizitza batean... poeta izan nintzen hartan.  
Ene berba neurtuak irakurrita izango zituzten, zeren beste orduz,  
gure egonezinak mugarik ez zuen aldi gerizpetsu hartan,  
estiloz mudatzen baikinaren urteak zenbat egun dituen guk halako sarri.

### **Man and Camel**

*For Varujan Boghosian  
On the eve of my fortieth birthday  
I sat on the porch having a smoke  
when out of the blue a man and a camel  
happened by. Neither uttered a sound  
at first, but as they drifted up the street  
and out of town the two of them began to sing.  
Yet what they sang is still a mystery to me—  
the words were indistinct and the tune  
too ornamental to recall. Into the desert  
they went and as they went their voices  
rose as one above the sifting sound  
of windblown sand. The wonder of their singing,  
its elusive blend of man and camel, seemed  
an ideal image for all uncommon couples.  
Was this the night that I had waited for  
so long? I wanted to believe it was,  
but just as they were vanishing, the man  
and camel ceased to sing, and galloped  
back to town. They stood before my porch,  
staring up at me with beady eyes, and said:  
“You ruined it. You ruined it forever.”*

### **My Name**

*Once when the lawn was a golden green  
and the marbled moonlit trees rose like fresh memorials  
in the scented air, and the whole countryside pulsed  
with the chirr and murmur of insects, I lay in the grass,  
feeling the great distances open above me, and wondered  
what I would become and where I would find myself,  
and though I barely existed, I felt for an instant  
that the vast star-clustered sky was mine, and I heard  
my name as if for the first time, heard it the way  
one hears the wind or the rain, but faint and far off  
as though it belonged not to me but to the silence  
from which it had come and to which it would go.*

## Gizona eta gamelua

*Varujan Boghosian-entzat*

Ene berrogeigarren urtebetetzearen bezperan  
apirikuan jesarrita erretzen ari nintzela  
behingo batean gizon bat eta gamelu bat  
agertu ziren. Inork ez zuen zaratarik atera  
hasieran, baina kaletik nora ezean ibiltzen  
eta hiritik irteten hasi artean biak kantatzeari lotu zitzaizkion.  
Dena dela, kantatzen zutena misterio hutsa zen niretzat:  
berbak ezin antzematekoak ziren eta melodia  
apainduegia gomutan gorde ahal izateko. Basamortura  
jo zuten eta joan ahala haien ahotsak  
bat eginik altxatu ziren haizeak harea arrastatzean  
ateratako galbahe soinuaren gainetik. Haien kantuaren ederra,  
gizonaren eta gameluaren nahasketa iheskor hura, begitanduaz  
bikote bitxi guztien irudi ideala.  
Hura ote nik itxarondako gaua  
luzaro ere luzaro? Baietz sinetsi gura nuen,  
baina aienatu ahala, gizonak  
eta gameluak kantatzeari utzi eta trosta egin zuten  
hirirantz. Nire apirikuaren ondoan geratu ziren,  
begi maleziatsuz so egin eta zera esan zidaten:  
“Dena hondatu duzu. Egundoko hondatu duzu”.

## Ene izena

Behin, belarra zela orlegi urrekara  
eta ilargi zuritan marmolezko zuhaitzak oroitarri berrien antzera zirela jagi  
aire lurrinduan, eta belardi osoa taupadaka  
intsektuen txirri eta zurrumurruekin, belarretan nentzan,  
distantzia handiak nire gainetik hedatzen sentituz, eta ene buruari nion itaundu  
zer izango nintzen eta non neure burua topatuko,  
eta ozta existitzen nintzen arren, sendi izan nuen lipar batez  
izarrez jositako zeru erraldoia nirea zela, eta aditu nuen  
neure izena lehen aldia balitz bezala, aditu zelan eta  
haizea edo euria aditzen dugun moduan, baina lauso eta urrun,  
nirea baino areago isiltasunarena balitz bezala  
harengandik etorria baitzen eta harengana berriro itzuliko.

### ***The Buried Melancholy of the Poet***

*One summer when he was still young he stood at the window and wondered where they had gone, those women who sat by the ocean, watching, waiting for something that would never arrive, the wind light against their skin, sending loose strands of hair across their lips. From what season had they fallen, from what idea of grace had they strayed? It was long since he had seen them in their lonely splendor, heavy in their idleness, enacting the sad story of hope abandoned. This was the summer he wandered out in the miraculous night, into the sea of dark, as if for the first time, to shed his own light, but what he shed was the dark, what he found was the night.*

### ***A Letter from Tegucigalpa***

*Dear Henrietta, since you were kind enough to ask why I no longer write, I shall do my best to answer you. In the old days, my thoughts like tiny sparks would flare up in the almost dark of consciousness and I would transcribe them, and page after page shone with a light that I called my own. I would sit at my desk amazed by what had just happened. And even as I watched the lights fade and my thoughts become small, meaningless memorials in the afterglow of so much promise, I was still amazed. And when they disappeared, as they inevitably did, I was ready to begin again, ready to sit in the dark for hours and wait for even a single spark, though I knew it would shed almost no light at all. What I had not realized then, but now know only too well, is that sparks carry within them the wish to be relieved of the burden of brightness. And that is why I no longer write, and why the dark is my freedom and my happiness.*

### **Poetaren melankolia lurperatua**

Uda batez, artean gaztea zela, leihoaren aurrean paratu eta bere buruari egin zion itaun nora joanak ote ziren ozeanoaren bazterrean jesartzen ziren emakume haiek, aiduru, inoiz ere helduko ez zen zerbaiten esperoan, haizeño arina azalaren aurka, ile adats lokabeak ezpainetara bidaltzen zizkiela. Zein urtarotatik ziren erori, zein graziazko ideiatatik desbideratu? Oso aspaldidanik ez zituen ikusten haien distira bakartian, astun haien astialdian, esperantza abandonatuaren istorio tristea haragitzen. Uda hartantxe irten zuen gau mirakulutsura, iluntasunezko itsasora, aurreneko aldia balitz bezala, bere argia igortzera, baina iluntasuna besterik ez zuen barreiatu, gaua baizik ez zuen topatu.

### **Tegucigalpako gutuna**

Henrietta laztana, zergatik ez dudan gehiago eskribitzen itauntzeko bezain atsegina izan zinenez gero, ahalik eta ondoen erantzuten saiatuko naiz. Inoizko batean, nire pentsamenduek ñir-ñir egingo zuten kontzientziaren iluntasun ia erabatekoan txinpartatxoan antzera eta transkribatu egingo nituen, eta orririk orri neure esaten nion argi halako batean egingo zuten dirdai. Idazmahaira jesarriko nintzen jazo berriak harri eta zur eginda. Eta are ikusten nituelarik argiak itzaltzen eta ene oldozpenak hainbesterainoko promesen ilunabarrean esangurarik gabeko oroigarri bihurtzen, artean ere harritura iraungo nuen. Eta desagertzen zirenean, ezinbestean ohi zuten bezala, gerturik egoten nintzen osteria ere ekiteko, gerturik ilunean luzaro jesarri eta are pindarño bakar bat itxaro izateko ere, bederik, nahiz eta ondo jakitun egon ia ez zuela ezelako argirik egingo. Artean konturatu gabe nengoen, baina orain ondoegi dakit, txinpartek barruan eroaten dutela argitasunaren zamatik aske geratzeko guraria. Horra hor zergatik ez dudan gehiago izkiriatzen, eta zerendako dudan goibeltasuna libertate eta zorion.

### Mark Strand, Poeta Laureado

Pequeña antología del escritor, ensayista, profesor y poeta de origen canadiense Mark Strand (1934), que ha recibido diversos galardones de poesía, entre los que destacan el nombramiento de Poeta Laureado en 1990 y el Pulitzer en 1999, por *Blizzard of One*. Como dejan traslucir los poemas elegidos por Paulo Kortazar, realiza una poesía en la que se aleja de la complejidad y del barroquismo, para utilizar un lenguaje en el que no hay elementos superfluos: no emplea más palabras que las estrictamente necesarias. Poesía en gran medida consciente y contenida, en la que la dialéctica entre la presencia y la ausencia adquiere un notable protagonismo, tanto como el sentimiento de impotencia del ser humano contemporáneo.

### Mark Strand, Poète Lauréat

Brève anthologie de l'écrivain, essayiste, professeur et poète d'origine canadienne, Mark Strand (1934), qui a reçu plusieurs prix de poésie, dont les plus remarquables étant sa nomination de Poète Lauréat en 1990 et le Pulitzer en 1999, pour son œuvre *Blizzard of One*. Tel que nous pouvons le voir dans les poèmes choisis par Paul Kortazar, sa poésie fuit toute complexité et baroque et il utilise un langage dépourvu de tout élément superflu, n'employant que les mots strictement nécessaires. Une poésie, dans une grande mesure, consciente et contenue, où la dialectique entre la présence et l'absence prend une place importante, tout comme le sentiment d'impuissance qu'éprouvent l'homme et de la femme contemporains.

### Mark Strand, Poet Laureate

A small anthology of the work of Canadian writer, essayist, professor and poet Mark Strand (1934), who has received various awards for poetry; most notably, he was named Poet Laureate in 1990 and won the Pulitzer Prize in 1999 for *Blizzard of One*. As revealed by the poems selected by Paulo Kortazar, Strand's poetry breaks away from complexity and baroque excess, adopting a style in which there are no superfluous elements: he uses no more words than strictly necessary. Strand's poetry is to a large extent conscious and restrained; in it, the dialectic between presence and absence holds prominence, as does the feeling of impotence of the modern human being.